

Fikziozko dirua

ZER DUGU ILEHORIEN KONTRA? Jende eskuzabal askoa ezagutu dut, egitasmu bat gustuko izanez gero burubelarri bere denbora batere mugarik gabe emateko prest dagoena: bertsolariak, artista plastikoak, musikariak, aktoreak... Profesional bikainak, euren egoa baztertu eta luxuzko sekundario izateko prest daudenak, euren sintoniarekin bat egin duen artistaren asmoekin bat egiteko prest beti, gauari orduak lapurtzeko prest beti, inorekin elkarlanean arituta euren ikusmena begiek eman dezaketenaz haratago zabalduko zaien itxaropena dutelako, ikasi egin nahi dutelako, *zerbait gehiago* bilatzen dutelako (*izpirituarentzat bazka* esan ohi zen garai batean –gaur jada ez dira halako gauza barregarriak esaten–). Harro nago haiek guztiez, nire lagunak dira asko, telefono dei bat aski dut, ez didate hutsik egingo. Zerbait izatekotan hori da niretzat kultur militantzia: gozatu eta gozarazi, norberekeriaren akzioak laguneren merkatuan banatu. Hortik aurrera, giza-jenero honetako *kultur profesionalak* nola ustiatu eta erretzen dituzten hainbat enpresak, hainbat lanek eta hainbat enpresek, hori, ez dut hain gustuko.

“Ez daukagu dirurik, baina ilehoriak eta begi-urdirak gara” irakurtzen zaie askotan aurpegian gure *zerbitzuak* eskatzera datozen askori. Gure erantzuna berbera izan da urte askotan: “ez du inporta, egingo dut, badakit gure mundutxo ez dela inorentzat (?) errentagarri...” Kristautasunaren eragina izango da, batek daki: lana sufrimenduarekin lotzea, bokazioz egindakoa gaizki ordaintzea zilegi jotzea. Gurea da errua, barrikan bizi den artista premia urrikoaren gorazarre halako bat egin izan dugulako gehiegitan. Baina, urtean behin behintzat, begiratu beharko genioke Ritz hotelean xanpaina sueto zabalitzen zuen Ernest Hemingwayri. Hark ere ez zuen bizi guztia lubakiaren lokatetik gaixoak atera eta haiek ospitalera garraiatzen pasatu.

Izan ere, hogeita hamar urteotan lortu ez badugu errentagarri diren kultur enpresak sortzea, eta hala ere errentagarri ez diren kultur enpresak sortzen jarraitzen badugu, okergabiltza: Gobernu Kanpoko Erakundeak



DANI BLANCO

sortu beharko genituzke, ez enpresak. Ez gara ausartzen esatera, baina esango genuke askotan: “Ilehoria eta begi-urdina bazara, majoa bazara eta ez baduzu dirurik zure enpresari eusteko, itxi enpresa eta sortu GKE bat. Denok lan egingo dugu doan bertan... Orain, zure soldata gure ordaintzearen kontu hori...”. Horra zer dudak ilehoriaren kontra.

Kultur sortzaileei egindako lanagatik merezi dutena ez ordaintzea, betiereko *amateurkeria* baterako kondena da. Aurrez gaude kondematuta (horretan ere).

HARTU DIRUA ETA ZIZTUAN IHES. Woody Allenen arabera diruak ez du zorionik ematen, baina sortzen duena hain da zorionaren antzeko, espezialista bat beharko bailitzateke sentipen hori benetako zorionetik bereizteko. Sabino Mendez musikariak *Corre rocker* memoria liburuan burutazio interesgarriak aletzen zituen 80etako *movida* madrildar ezagunean aurrera atera ziren talde eta bakarlariei buruz: banan-banan, ia batere salbuespenik gabe, denak ala denak familian dirua izan duen jendea direla zioen. Zergatik? Erran gabe doa: diru horrek ahalmenu dielako beren gaitasunen garapena, beren ofizioa osoki berrakatzeko, indarrak okerreko lekuan ez xahutzea,

haiek jeneratzen zuten musikak inolako predikamendu edo arrakastarik ez zuenean zer jana izaten eta musika egiten jarraitzea, talenturik ez zutenean talentuaren xerka segitzea...

Ehizatutako pieza bakoitzeko kobratzen duenak –ehizatzen ez badu kobratzen ez duenak– badaki zer den ehizan egin eta gero zor zaion ordainaren bila joan beharra. Ehiztariak

« Zerbait izatekotan hori da niretzat

kultur militantzia: gozatu eta gozarazi,

norberekeriaren akzioak laguneren

merkatuan banatu



irudiak:

Antton Olariaga

txakurra izaten du lagun usnari, baina kultur munduko *freelance* batek bakar-bakarrik abiatu behar izaten du egindako lanaren ordaina jasotzera. Paper dantzarik ez da falta izaten, faktura nahikoa ez eta, hartzekodunen zerrendatan alta eman behar erakundetan kobratzeko, bidean galtzen diren paperak, karnetaren fotokopiak... Batekin aski ez eta, bi lan: lana egitea bata, kobratzea bestea. Soldatapeko hiltzaileei ere ematen zaie guri baino konfiantza handiagoa: “erdia orain, beste erdia lana amaitutakoan...”. Guk lana amaitutakoan dena, eta hori ere, kostata.

Dirua aipatzea gustu txarrekoa ei da gure artean. Gai taburik bada, diruarena da horietako bat. Zeren seinale ote? Gure diru premia terrenal eta primarioa aserik dugunez, gai gorenagoetara lerratzen zaigula elkarrizketa? Ezezkoan nago. Zenbatzen hasiko bagina zenbat aldiz lan egin dugun ordaina zein izango den zehatz-mehatz jakin gabe... Denok dugu prezio bat, hala ikasi genuen film beltzetan. Prezioa jartzea omen da kontua. Nire susmoa: merkeegi ez ote garen saltzen.

SOBORNAGARRITASUNA. Irlandan musikariak zenbait zerga ordaintzetik libre daude. Zerikusirik ba ote du horrek herrialde horretan hainbeste musikari sortu izanarekin? Ez, jakina... Kasualitatea da.

Paul Auster hondoa jota zegoen, amore ematear, idazteari betiko uztear, aitaren heriotzak ustekabeen espero gabeko diru kopurua eta hilabete batzuetako lasaitasuna ekarri zizkionean. Aita hil eta diru hori jaso ezean, jarraituko ote zuen idazten? Erantzuna pentsatze hutsak hotzikarak sortzen omen dizkio.

Raymond Carverrek Strauss Living Award beka jaso zuen 1983. urtean. Urte horretan hasi eta ondorengo bost urteetan 35.000 dolar jaso zituen urtero-urtero. Kasualitatea ote da bere ipuinik onenak sasoi horretan idatzi izana? Bai, jakina... Kasualitatea da.

Ongi da, kalkula dezagun azken hogeitau urteotako prezioen gaineko zergaren igoera eta ea zenbatean geratzen zaizkigun 35.000 dolar horiek... Lepoa egingo nuke 50.000 dolar baino gutxiago ez direla izango. Idazle baten independentziaren prezioa izan liteke hori —nire independentziarena bada, behintzat—. Gurean, ordea, badago halako sentipen bat, idazlearen sobornagarritasunaren langa oso

baxu ipintzen duena. Badirudi dozena bat mila euro jasotzen duena boterearekiko otzan bihurtzen dela, zergatik eta, zortzi hilabetez alokairua soluzionatzen diotelako, galdu egin beharko lukeela boterea kritikatzeko aukera. Ez gaitzen xaloak izan: hain merkeak ere ez gara. Eskupekoa diruarekin nahasten da hemen, hori da arazoa. Alda dezagun lekuz eztabaida: min-tza gaitzen benetako diruaz, ez eskupekoaz.

DIRUA FIKZIOAN, FIKZIOZKO DIRUA.

Jabetuko zineten honezkero film amerikarretan ez direla sekula jate-txetean ordaintzeaz ahazten. Europarretan aldiz... Irudi luke zerbitzari guttiak familiakoak dituztela protagonistek, ez baitute sekula pagatzen. Elipsi europarra? Gustatu ala ez —eta ez dirudi kontu honek ondorengo urteotan aldatzeko trazarik duenik— sosa da mundua neurtzeko

eratako bat. Irakurri edozein egile iparramerikarren liburuak eta ohartuko zarete: xehe-xehe esango digute zenbat ordaindu duten

bigarren eskuko Cadillac gorria, zein duten soldata, zein moteleko gelaren prezioa. Amerikarregi ari naiz gaur ere? Tira, literatura errusiarrean ere berdina da hori: *kopek* konturik ez da inoiz falta izaten... Onar dezagun: hala ez balitz bezala jokatzeko erakutsi digute, baina bizitzako termometroetako bat da dirua. Eta zenbatean aipatzen da euskal literaturan temperatura hori? Marka da gero! Hor ere dirurik ez? Errealitatean ez eta fikzioan ere ez? Zenbat aldiz agertu da euro hitza euskal nobelatan? Esango nuke gehiegitan ezetz. Zapatero Espainiako presidenteari ere, kafearen prezioaz ideiarik ez zuela argi ikusi zelarrik, euskal literaturako pertsonaia baten itxura hartu genion.

Beharbada, liburuak eta aldizkariak inprimatzeari utzi, eta, Lucio Urtubiak egin zuen bezala, diru faltsua —fikziozko dirua— fabrikatzeari ekin beharko genioke, nazio eraikuntzaren izenean. ■

Hala ez balitz bezala jokatzeko erakutsi digute,
baina bizitzako termometroetako bat da dirua.
Eta zenbatean aipatzen da euskal literaturan
temperatura hori? Marka da gero!

